

2001-12-19  
**kioskoa****Pantxike Agirre****Aurrekoak**

EAEko aurrekontuak onartzeko bigarren saioa zegoen atzoko deitua Legebiltzarrean, eta egunkariak horri eman zieten titularrek azaltzen dute auzi honen inguruan hartutako jarrera. «Atutzak ez du baztertzeko 25 diputaturekin osoko deialdia egitea, oposizioaren blokeoak jarraitzen badu», zioen **El Correo Español**-ek polemika indartu nahian. «Hirukoa ez da mugitzen eta gaur ere aurrekontua ez eztabaidatzearekin konformatu da», zen **Gara**-ren titularra. PSE-EEren balizko mugimendu bati begira egin zuen berea **El Mundo**-k: «Aurrekontuak sostengatzea pentsatzen ari da PSE hirukoaren akordio antiterrorista bat egitearen truke». Sozialistenak, baina, «haur keinuak» direla zioen **Deia**-ko zuzendari Juan Jose Bañosek bere zutabearen: «PSEk etxea nahasturik dauka, Redondo Terrorrosek besteen gain utzi nahi badu ere berea den erantzukizuna. Horregatik haur keinuak egiten ditu bere alderdiko baskistenak kontent utzi nahian». Jaurlaritzak PSErekin negoziatzeko deia egin duela berriz nabarmentzen zuen **Deia**-k, eta Iritziko orrietan azaltzen zuenez, «norbaiti zentzumena etorri eta eskandaluzko aliantza hori hausten ez badu», Atutzak *quorum*-a osatzeko beste «legezko bide» batzuetara jo beharko du. Jose Luis Zubizarretak —Ardana lehendakari ohiaren aholkulari izandakoa— EAJk eta PSEk elkarrekin gobernatzen zuten garaiak faltan sumatzen zituen **El Correo Español**-en. «Batasuna Legebiltzarrean den distortsioa sahisteko gehiengo absolutuak osatzea beste formularik ez dagoela dirudi. Nazionalista eta konstituzionalisten arteko koalizio transbersalei esker urteetan aplikatu den formula da hori, eta oraingo eta aurreko legegintzaldian baztertu dena. Nire ustez, jarrera burugabe horren ondorioak ordaintzen ari gara».

**Egunkaria** 3.428. zenbakia**Dhorezko Lehendakaria:** Martin Ugalde**Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:** Joan Mari Torrealdai**Kontseilari Ordezkarria:** Iñaki Uribe**Zuzendaria:** Martxelo Otamendi**Gerentea:** Mikel Sorozabal**Publizitatea:** Idoia Sanz**Egoitza Nagusia:** Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel.: 943300222  
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707**Webgunea:** www.egunkaria.com**Posta elektronikoa:** egunkaria@egunkaria.com**Publizitatea:** publi@egunkaria.com**IKUSKATURIKO HEDAPENA**  
Batzorde Parekidea. 72564 E. Lege Gordailua. SS 800/90 ISSN 1134-640X**ORDEZKARITZAK** ■ **Araba:** San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz  
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965**Nafarroa:** Irabxe Monasterioa, 45-13. esk. (Irrintzi dorrea) 31011 Iruñea  
Tel.: 948178073-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686**Bizkaia:** Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715  
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114**Lapuri, Nafarroa Beherea, Zuberoa:** Pelletier 35, 1 503 Posta  
kubxatila, 64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511**martintxo****hizpideak****Sozialistei proposamena**

Eusko Legebiltzarreko blokeo egoerari irtenbidea ematen ahalgintzeko Legebiltzarreko talde guztiekin elkarrizketa erronda egiteko asmoa agertu du Juan Jose Ibarretxe Jaur-laritzako lehendakariak. Baina argi eta garbi utzi du PPrekin eta Batasunarekin adostasuna lortzeko aukerarik ez dagoela gaur egun, eta egoera desblokeatzea ahalbidetuko lukeen akordioa alderdi sozialistarekin lortu nahi duela. Eta horretarako baldintza bakarra «erakundeei boikota egiteari uztea» dela adierazi du. Baliteke, zaila dirudien arren, bide horretatik asmatzea ataka koiuntural honetatik ateratzen, baina Ibarretxeri botoa eman zioten askok nekez ulertuko dute ezker abertzaleari atek horren modu zakarrean ixtea eta, aldi berean, alderdi sozialistari parez pare zabaltea.



Juan Jose Ibarretxe eta Javier Madrazo Eusko Legebiltzarrean, atzo, aurrekontuen inguruko eztabaidan.

**Autonomia mugatua Korsikarentzat**

Frantziako Asanblea Nazionalak Korsikari autonomia mugatua emango dion estatutua onartu zuen atzo. Uharteko garapen instituzional eta politikoa zehazten duen lege-gaiak ez dio uharteari botere handirik eskainiko, Parisetik gainbegiratu izango den autonomia murriztu baizik. Korsikera, esaterako, soilik ama-eskoletan eta lehen mailan irakatsiko da eta «borondatez». Lege propioak egiteko, gainera, 2004a arte itxaron beharko du Korsikak, baldin eta ordurako indarkeria desagertu bada. Indarkeria sortarazi duten elementu askori, hala ere, ez die behar bezala heldu lege-gaiak, eta horrek arazoak sor ditzake.

**Arrantzatze aukera gutxi Europako Batasunean**

Datorren urteko arrantza kuota ezarri ziren atzo, Bruselan, Arrantza ministroen Kontseiluan. Besteak beste, legatza arrantzatze kuota zeuden jokoan. Azken urteetako murrizketen ostean, txosten zientifikoek zioten badagoela harrapaketak handitzeko aukera; baina, legatzaren kuota-aren igoera eskasa eta euskal arrantzaleek harrapatzen dituzten beste espezie batzuen kuota murrizketa erabaki da. Arauak Europako beste edozein herrialdean baino zorrotzago bete dituen euskal flotatik kexu azaldu dira, Europan jaramonik ez zaiela egiten salatuz. Jaurlaritzak ere Europan euskal arrantzaleen interesak defenditzeko ezintasuna eta Espainiako Arrantza Ministerioaren jarrera salatu ditu.

Bilboko Guggenheim museoa.

**Bilboko Guggenheim, AEBetako krisiaren menpe**

Guggenheim Fundazioak bost milioi dolarretan zenbatu du New Yorkeko museoari irailaren 11ko gertakizunek ekarri dioten galera. Horren ondorioz, 87 langile kaleratu dituzte eta bisitari kopurua erdira murriztu zen atentatuaren ondorengo lehen asteetan, Thomas Krenz Fundazio-ko zuzendari nagusiak atzo azaldu zuenez. Bilboko Guggenheimen aurreikuspenak ere aldarazi ditu AEBetan jatzotakoak. Kalte handiena artistikoa izan da. 2002rako aurreikusita zeuden Alexander Calder eta Matthew Barney-eren erakusketak bertan behera geratu dira, Fundazioak ezarri duen aurrekontu murrizketaren ondorioz.